

2020KO UZTAILAREN 30EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hamar.

HILABETEA: Uztaila.

URTEA: Bi mila eta hogei.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- AITOR ALDASORO ITURBE
- LEIRE ARTOLA UGALDE
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR

- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ

- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE

- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES

- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran, LURDES ALEGRIA LASA kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. Aurreko aktaren onespena: 2020-06-15

Aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoenez.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

A.- 2019KO KONTU OROKORRA: 2019KO KONTUEN ONARPENA ETA BARNE KONTROLARI BURUZKO URTEKO LABURPEN TXOSTENA. 2020LIPR0001

Ezagutzera eman da antolakuntza batzordearen proposamena:

“AURREKARIAK

1.- 2020ko apirilaren 23an Antolakuntza Batzordea Kontuetarako Batzorde Berezi gisa osaturik egindako bileran, Kontuhartzaileak ondorengoaren berri eman zuen:

- 2019ko ekitaldiari dagokion Aurrekontu Orokorraren Kontua osatu dela, ondorengo dokumentuez osatuta: Aurrekontuaren likidazioa, Egoera Balantzea, Ondarearen emaitza ekonomikoaren Kontua, Diruzaintzako gerakina eta indarrean dagoen legeriak eskatutako gainerako Eranskinak, ondorengo erakundeei dagozkienak:

- *Udala*
- *Euskaltegia*
- *Loinatz Musika Eskola*
- *Antzizar Kiroldegia*
- *Beasain Lantzen, S.A.U. likidazioan*

2.- Aipatutako kontuei buruzko jendaurreko iragarkia 2020ko maiatzaren 5ean argitaratu zen G.A.O.ean, eta 15 lanegun egon behar zuen jendaurrean.

Aipatutako epea igaro denez, inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe:

- *Udalbatzaren onespenerako jartzen da Udalaren, bere organismo autonomoen eta "Beasain Lantzen, S.A.U. sozietatearen" kontuekin osatutako 2.019 ekitaldiko Kontu Orokorra.*

- *2019 ekitaldiari dagokion Barne kontrolari buruzko urteko laburpen txostenaren berri ematen zaio Udalbatzari."*

Alkate jaunak azaldu du 2019ko aurrekontuaren hasierako kopurua 16 milioi pasatxo zela, eta egindako kreditu aldaketen ondorioz, behin betiko aurrekontua hemeretzi milioi eta hirurehuneko izatea iritsi dela. Egikaritze maila gastuetan %82koa izan da, sarrerena %90koa. Gerakina 14 milioi zazpiehuneko izan da. Mailegua 2 milioi pasatxo. Nahia da, urte bukaerako amortizatzea. Organismo autonomoak desegin ziren eta orain udalaren kontabilitatean aurreikusten dira Musika Eskola eta Euskaltegiari lotutako kontuak. Beasain Lantzen, likidazioan dago. Zortzi milioiko galerak azaltzen dira baina hori gertatzen da kiroldegiko obren amortizazioagatik eta 48. area garatzeko zailtasuna duenez, debaluazio bat sortzen du.

Jarraian esan du, egonkortasun legeak eskatzen duena modu egokian bete dela.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Decir que estamos de acuerdo con el informe que hace la interventora en el sentido de que prestaciones que se repiten todos los años, deberían contratarse mediante procedimientos abiertos y no mediante contratos menores. En cuanto a las subvenciones pensamos que se debería trabajar para que lo sean en concurrencia competitiva, ya que éstas no llegan al 10% respecto de todas las que se otorgan y hacer también un esfuerzo para que se afine en los documentos justificativos."

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): "Egia da batez ere Lurraldetik egiten diren kontratu txikiak, nekeza egiten dela, hainbat lan iturgintza eta elektrizitate bezalakoak, sailkatzea eta bilakatzea. Askotan izan daitezke hamaika arrazoi ezberdinekin egindakoak. Interpretazioak daude, hau da, kontratu txikien bidez egin edo adibidez lau urteetarako atera. Orain arte hemengoekin eta inguruko herrikoekin funtzionatu da, baina legea zorrotz hartuta garbi dago zer eskatzen duen. Atzo zerbitzuburuak aurkeztutako konpromisoa dago eta kasu honetan 2021eko abendurako helburu ezberdinekin egiten diren kontratu txiki horiek bere onera ekartzea, lau urteko kontratuak eginez. Planing bat aurkeztu du. Egia da paperak dena aguantatzen duela baina ez da erraza. Dirulaguntzekin berdin gertatzen da. Garbi izan behar dugu legea betetzea helburua dela, baina baita ere herrikoei ematea. Entzun dut herri batek konkurrentzian atera izatea eta aldameneko herrikoari diru-laguntza eman beharra izatea. Herriko elkarteez ari gara eta zoritxarrez ez ditugu hainbat elkarte. Elkarte batzuk gainera nahiko lan egiten duten egiten jarraitzeko. Adibidez: xakea edo arku-tiraketa. Bakarrik ditugu. Helburua da ematen zaienei ematea. Legea ere bete egin behar da, noski, baina esan behar da aurreko aurrekontuetan nominatibo izaerarekin onartu zirela. Bide bat egin behar da eta nik uste horretan gaudela, baina ez da erraza hori guztiak konkurrentzia bidez ematea."

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Lan batzuk egiten ari dira eta markatzen da udal honen norantza. Guk ere herriko elkarteei ematearekin ados eta baita ere gauzak erraztearekin, baina jarraipena egiten denean gabezi batzuk ikusten ditugu ez bakarrik udalaren aldetik, elkarteen aldetik ere bai. Horren ondorioz exigentzi minimo batzuk jarraipena egiteko ezartzea, ondo irudituko litzaizkigu. Horrekin lotuta ere aztertu beharko genuke diru laguntzak zein irizpideekin ematen diren, gure ustetan

desoreka batzuk daudelako. Horretarako gure eskua luzatzen dugu. Hiru hilabete barruan egin behar den ekintza planean, hemen ateratakoak islatu ditzakegu.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Eskertzekoa da, baina nik ez dakit benetan kontziente garen zertaz ari aren. Administrazioak pentsatzen du zenbat diru eman behar duen eta diru laguntzak elkarteen aurretik doazela. Zoritxarrez edo zorionez, administrazioa doa elkarteen atzetik. Bihar beste talde bat etortzen bada, Udalak nola aurreikusten du hori?. Udalak administratu egiten du. Herria aurretik doa. Irizpideak markatzerakoan benetako zailtasuna hori da. Ados nago futbolari edo saski baloiari dirua eman behar bazaio, irizpideak hala nola jarri beharko direla, berdintasuna, hizkuntza etab. betetzeko. Aspektu hauek nahiko ordenatuta daude, baina esaten dugunean guk aurretik markatu behar ditugula irizpide guztiak, ez da erreala zeren eta onerako edo txarrerako udala herriaren atzetik doa. Dantza talde bat adibidez, sortzen bada, lagundu egin beharko diogu. Gure teknikariek ez dute tira egiten esanez, adibidez, boleibol taldea falta dela eta bilerak egingo ditugula talde hori sortzeko. Ez, gertatzen dena da boleibol talde hori etortzen dela eta irizpide zentzudunekin diru laguntza ematen zaio pausoak eman ditzan. Hor dugu nire ustez benetako zailtasuna irizpideak markatzen. Zerbitzueta diru laguntzak aipatzen direnean berdina da. Elektrizistaren zerbitzua kontratatzeko bi urte baino gehiago dira agindua eman genuela. Ba dira inguruan beste herri batzuk berdina egin zutenak, baita damutu ere majoi!. Jartzen dituzu irizpideak, paperak dena aguantatzen duen horrekin, eta gero zer pasatzen da: Bilboko enpresa batek eramaten duela eta herrikoak ezin lana eginez. Urgentzi bat gertatzen denean, ezin eman lanik. Ados egonda esaten duzuenarekin, zailtasunak badaude, iruditzen zaidalako, nahiz eta legeak hori ez esan, ahal dela inguruko jendeari eman behar zaiola lana eta ez kanpotik datorrenari. Esatea erraza da, baina egitea zaila legea bete behar bada. Halere esan behar da, azken hamar urteetan ibilbidea egin dela eta ez duela aurrekoarekin zer ikusirik. Zuriketak hobeto egiten dira eta behar bada hurrengo pausoa da elkarte horien diru-sarrerak aztertzea. Taldeak gartzetzen ari diren heinean gauza txukuntzen doaz baina elkarteetan boluntarioak daude eta konpentsazio txiki bat ematen zaie, baina konpentsazio hori ere legearen arabera egin behar da. Pausoak ematen ari dira, nahiz eta ez izan kontuhartzaileari gustatuko litzaiokeenak.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da, 2019rako Aurrekontu Orokorren Kontua, ondorengo erakundeei dagokiona:

- Udala
- Euskaltegia
- Loinatz Musika Eskola
- Antzizar Kiroldgia
- Beasain Lantzen, S.A.U. likidazioan

B.- COVID19AREN ONDORIOEI AURRE EGITEKO NEURRIEI DAGOZKIEN KREDITU GEHIGARRIAK ONARTZEKO. B20/0612 EBAZPENAREN BALIOZKOTZE PROPOSAMENA. 2020CRAD0008

Ezagutzera eman da Alkatearen ondorengo proposamena:

“AURREKARIAK

1.- Maiatzaren 12ko, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsagatik 2020an egin beharreko konturako ordainketak aldatzen dituen eta toki-erakundeentzako aurrekontu eta zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituen 3/2020 Foru Dekretu-Arauak bere 2. Artikuluan kreditu gehigarriak onartzeko, ondorengo aparteko araubidea ezartzen du:

“1. Toki-erakundeetan, Covid-19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak tokikorporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen bidez izapidetuko dira, eta ez zaizkie aplikatuko Gi puz koako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan aipa tzen diren aurrekontuen erreklamazioari eta publizitateari buruzko arauak.

2. Dekretu edo ebazpen horiek hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko dira; horretarako, gehiengo soil baten aldeko botoa eskatuko da eta, ondoren, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.”

Aurrekontuko kontu saila Partida Presupuestaria	Kontzeptua Concepto	Kredituak Créditos		
		Egungoak Actuales	Aldaketak Modificaciones	Behin betikoak Definitivos
0243.471.433.10.02	Diru lag. Merkatariei COVID19: zergak	0,00	20.000,00	20.000,00
0110.227.311.00.99	Indemnitaz:Kontratu eteteak COVID19	4.427,00	19.344,00	23.771,00
GUZTIRA / TOTAL		0,00	39.344,00	43.771,00

Aipatutako artikuluen 2. atalean xedatutakoa kontutan izanik, Udalbatzari egiten zaio ondorengo

PROPOSAMENA

Lehenik.- B20/0612 Alkatearen ebazpena baliozkotzea.

Bigarren.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea agintzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Ulertzen dugu COVID19an sortu duen egoera berri honi irtenbidea eman behar zaiola, baina bai bozeramaile taldean Herriar batzordean eta baita Pleno honetan ere esan dugu ea hartzen ari diren neurri hauek nahikoak ote diren. Aipatu da egoera honekin herri ezberdinek laguntzak ematen hasi direla eta gobernu taldearen nahia ez dela ranking horretan sartzea. Gu ere ados gaude horrekin. Hau ez da lehiaketa bat baina adi egoteko garaia da adierazle ekonomikoak baditugulako egungo egoerak sortutako larrialdiari buruz. Guk zaintzarako partida bat proposatu genuen, oinarritzko beharretarako ere bai eta ez zen onartu. Egia da aldizkarian kolore ezberdinetako diru laguntzak ikusten ari garela. Orain ere eskolako materialarentzat ere atera dute (Eibar, Urretxu, Andoain...). Udal gobernuari galdetu nahi genion zein diren aurreikuspenak, partida berriren bat sortuko

den....Irailetik aurrera egoera okertu egin daiteke eta jakin nahi dugu zein da egin duzuen prebisioa. Gure zalantza da ea benetan erantzuten ari garen.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Egia da okerrera, etortzeko dagoela. Gaur bertan izan dut bilera Goiekin eta batez ere dirutan egin beharko da ekarpen edo esfortzu inportantea, langabeziari aurre egiteko eta enplegu planak eta formazio planak sustatzeko. Eskuartean ditugu emakumeentzako eta ikasketarik ez dutenentzat programa pare bat, Aldundiarekin lantzen ari garenak. Horrek ez du kentzen, zu aipatzen ari zaren diru laguntzak aurreikusi behar ez direnik. Horiek bere garaian aipatutakoei forma ematea da. Merkataritzarekin, orain arteko ildoarekin jarraituko da. Zaintzarekin, udalekuetan egin dugu esfortzua. Ongizateetik jarraipen zorrotza egiten ari da, jakiteko beharrak zeintzuk izan daitezken eta horretara egokitzen ari gara Jaurlaritzaren eskutik. Zuk diozun bezala adi ibili beharko dugu, batez ere, langabeziari aurre egiteko, beste laguntzak ere kontutan izanda. Gerakina dugu eta horrek esan nahi du muskulu bat badugula horri buelta ematen laguntzeko.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Entzun dugu ongizatekoaren jarraipena egiten ari dela, baina ikusten ez duguna da praktikan gauzatzen denik. Kredituetan ez da bestelako beharrik azaldu. Argi dagoena da bostehun eta piko pertsonak ongizatea deitzen badute, zerbaitegatik dela eta badirudi elikagaien eskaera asko igo dela.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Ditugun partidak igo egiten dira. Beharrak daudenean eman egiten dira. Egoera kaxkarrean dauden familiei egiten zaie jarraipena.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Guk galdetzen duguna da ea egoera berri honetan beharrak detektatu diren, jaso diren eta erantzuna ematen ari garen.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Diru gordailu bat dago horretarako baina gaurko egunean ez da detektatzen. Esaten zaiguna da udazkena beroa izango dela. Gizarte ongizateetik jarraipena egiten dute eta gu ere gainean gaude. Deiak jaso baino ongizatekoek egiten dituzte deiak.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Esan duzu ez dagoela arazorik partida berriak sortzeko. Adibidez eskolako materiala erosteko egon dira familiak diru laguntza hori behar dutena.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): Guk ikastetxeko zuzendariekin dugu harremana eta normalean hortik jakiten ditugu beharrak zeintzuk diren.”

Malu Valles Fernández (EAJ-PNV): “Nuestra disposición es clara. Hemos transmitido a las trabajadoras que cualquier necesidad que se detecte se traslade. Durante los tiempos más duros del confinamiento llegamos a pensar en ayudas de alquiler de vivienda, pero salieron dos ayudas del Gobierno Vasco, una a través de Lanbide y otra para rentas no sujetas a Lanbide. Beasain es un ayuntamiento saneado. Las necesidades tienen que ser reales, concretas y acreditadas y si esa situación se da, se podrían crear líneas de ayuda. De hecho se ha ampliado la partida de CLL y estamos a la espera de saber si vamos a tener más necesidades. Hoy en día, no tenemos más solicitudes. Son los usuarios que habitualmente tenemos. Ongizate está muy implantado en la ciudadanía. La gente que tiene necesidad, acude al departamento, bien de manera continua o bien por una necesidad puntual. Es cierto que no llegamos a todo, pero estamos atentos a las necesidades que puedan surgir”.

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Ez dugu balorazio bat egin nahi, baina gure ustetan behar horien zain egon beharrean gu aurreratuko beharko ginateke. Adibidez, eskola materiala erosteko laguntza aterako balu, agian jendeak eskatu egingo luke."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta aho batez onartu da proposamena.

C.- KREDITUEN EGOKITZAPENA. 2020EKBO0045

Ezagutzera eman da Alkateak emandako Ebazpena:

"Gaia.- "Kreditu ez erabilgarria" izendatzea.

A.- Kontu-hartzaileak txosten ekonomikoa egin du, eta honako hau dio:

**AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN, FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN ETA
GASTU-ARAUAREN HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO TXOSTENA**

2020KO EKITALDIKO AURREKONTUA

ARAUDI APLIKAGARRIA

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Foru Gobernu Kontseiluaren erabakia, 2019ko urriaren 29koa, Instrukzioa onartzen duena, Gipuzkoako toki-erakundeek 2020ko aurrekontuak egiteko, onartzeko eta gauzatzeko jarraitu beharko dituzten arauekin.
- 21/2003 Foru Arau, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.

AURREKARIAK

1.- 2019ko maiatzaren 23an Udalbatzak plan ekonomiko-finantzario bat onartu zuen, Estatuko Administrazio Orokorrak Goieki, S.A. Beasaingo Udalaren kontsolidazio eremuan, egonkortasun-ondorioetarako, sartu izanaren ondoriozko gastu-araua ez betetzeagatik behartuta, sozietate horretan gastua handitzeagatik, zati batean kreditu-eragiketa batekin finantzatutako pabiloi berri bat eraikitzearen ondorioz.

Planaren indarraldia ekitaldi honetan amaitzen da eta Udalak planaren jarraipena egin behar du, aurrekontu-egonkortasuneko, finantza-iraunkortasuneko eta gastuaren arauko helburuak betetzen direla bermatzeko.

2.- 2020rako aurrekontua, Udalaren eta Goieki, S.A.rena bateratuta, 15.371.176,82 euroko gastu konputagarriarekin onartu zen, 2019ko ekitaldirako aurreikusitako likidaziotik abiatuta.

Hala ere, behin betiko likidazioaren ondoriozko gastu konputagarria 14.237.940,80 eurokoa izan zen, Goieki S.A.k egindako ibilgetuaren salmentaren ondorioz.

2020rako onartutako %2,9ko (2020ko otsailaren 27an Estatuak onartua) igoera aplikatuta, ekitaldi honetarako gehieneko gastu konputagarriak 14.650.841,08 eurokoa izan behar zuen; beraz, aipatutako araua betetzeko, Udalaren eta Goieki S.Aren artean bateratutako aurrekontua 720.335,74 euro murriztu behar da.

Hala ere, COVID19k eragindako krisiaren ondorioz ekitaldi honetan sortutako inguruabarrak direla eta, gastua are gehiago murriztu behar da, hurrengo atalean azaltzen den arrazoiaren ondorioz.

3.- COVID19aren krisiak eragindako jarduera ekonomikoaren moteltzeak 3/2020 Foru Dekretua onartzea eragin du. Dekretu horren 1. artikulua honako hau ezartzen du:

“1. UFFFaren konturako ordainketak egiteko, 2020ko ekitaldian, % 20ko murrizketa bat aplikatuko zaio Gi puz koako Lurralde Historikoaren 2020. urterako Aurrekontu Orokorrak onar - tzen dituen abenduaren 23ko 9/2019 Foru Arauaren 30. artikuluan aurreikusitako zenbatekoari, behin betiko likidazioari kalterik egin gabe.

2. Murrizketaren zenbatekoa hiru kuota berdinetan aplikatuko da maiatzeko, abuztuko eta azaroko konturako ordainketetan.

3. Hala ere, Gipuzkoako Finantzen Kontseiluak proposatuta, azaroko konturako ordainketen zenbatekoa berriz berrikusi ahal izango da, Eusko Jaurlari tza ri egin beharreko ekarpenen aurre-likidazioan oinarrituta.

Hasiera batean Foru Aldundiak egindako aurreikuspenaren arabera, Beasaingo Udalari zegokion zenbatekoa 10.003.782,00 eurokoa zen, eta lehen aipatutako % 20ko murrizketa aplikatu ondoren, 8.003.025,60 eurokoa da aurreikuspen berria.

Diru-sarreraren udal aurrekontuan, UFFFaren aurreikuspena 9.060.773,74 €koa da; beraz, aurreikuspen horren arabera, udal-aurrekontuak 1.057.748,14 €-ko aurrekontu-defizita du dagoeneko, handitu egingo dela aurreikusi litekeena, beste udal diru-sarrera batzuk murriztearen ondorioz.

4.- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak 18. artikuluan ezartzen duenez, administrazio publikoek aurrekontu-exekuzioari buruzko datuen jarraipena egingo dute eta gastu publikoa doituko dute ekitaldia ixtean aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzen dela bermatzeko. Gainera, 24. artikulua ezartzen du finantza-tutoretza gauzatzen duen organoak sei hilean behin txostena egingo duela toki-korporazioek plana betetzen dutela egiaztatzeko.

5.- 2/2012 Lege Organikoak, egonkortasun-printzipioak betetzen ez diren kasuetarako neurri hertsatzaileak ezartzen ditu ere, eta honako betebeharrak ezartzen ditu: kreditu ez erabilgarriak onartzeko betebeharra, helburuak beteko direla bermatuko duen atxikipena egitea eta, hala badagokio, gordailu bat eratzea interesekin, Espainiako Bankuan.

Artikulu horren 2. paragrafoan eta hurrengo artikuluan ezartzen denez, beharrezko neurriak hartzen ez badira edo nahikoak ez badira, Gobernuak adituen batzorde bat bidali ahal izango du, nahitaez bete beharreko neurrien proposamena egiteko. Ez betetzeak bere horretan badirau, finantza-tutoretza esleituta duen autonomia erkidegoak toki-korporazioko presidenteari eskatuko dio hura betetzeko, eta egoerak bere horretan badirau, interes orokorretarako kudeaketa larritzat jo ahal izango da, eta bete ez duen toki-korporazioko organoak desegin ahal izango dira.

Horregatik guztiagatik, jakinarazten da aipatutako inguruabarrak betetzen direla egiaztatzeko unea 2020ko ekitaldiko likidazioa izango den arren, egungo aurreikuspenak kontuan hartuta, beharrezko neurriak hartu behar direla ekitaldi-itxieran helburu horiek betetzen direla bermatzeko.

B.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 40. artikuluan arautzen du aurrekontu-kredituen egoera:

“40. artikulua. Aurrekontuko kredituen egoera, eta gastuen aurrekontua exekutatze faseak.

1. Aurrekontuko kredituak egoera hauetako batean egon daitezke:

- a) Kreditu erabilgarriak.
- b) Erabili gabeko kreditu atxikiak.
- c) Kreditu ez-erabilgarriak.
- d) Kreditu erabiliak.

Printzipioz, gastuen aurrekontuan edo haren aldaketetan onartuta dauden kreditu guztiak erabilgarritzat hartzen dira. Egoera horretatik aurrera, aurrekontu kredituek har ditzaketen beste hiru egoeretako batean gera daitezke, hau da, edo atxikiak edo ez-erabilgarriak, edo, bestela, gastu bat baimendu daiteke, eta, horrela, gastua exekutatze prozedura abiatzen da.

....

Kreditu baten ez-erabilgarritasuna gertatzen da aurrekontuko partida batek duen kredituaren saldo osoa edo haren zati bat ibilgetzen denean, hau da, hura ezin dela erabili deklaratzeko denean.

Ez-erabilgarritasunaren deklarazioak ez du deuseztatuko kreditua, baina ez-erabilgarritzat hartutako saldoaren largura ezin izango da baimendu inolako gastu edo transferentziarik, eta haren zenbatekoa ezingo da txertatu hurrengo ekitaldiko aurrekontuan. Kredituen ez-erabilgarritasuna deklaratzeko eta haiek berriro erabilgarritzat jotzea entitateko Osoko Bilkurari dagokio.”

Azaldutako guztia kontuan hartuta, udal-aurrekontua aztertu da, eta “Kreditu ez erabilgarriak” deklaratu daitezkeen partiden 936.928,62 eurokoa dena.

Aurrekontuan aurreikusi gabeko diru-sarrerak jaso direla kontuan hartuta, eta aurrekontu-egonkortasunaren arloko egungo mugak malgutzeko aldi baterako neurriak onartuko direla aurreikusita, murrizketa horrek Aldundiak Udalak Finantzatzeko Foru Funtzaren kontzeptuan aurreikusitako diru-sarreraren murrizketa ez du estaltzen ez eta, udalaren diru-sarrera propioen balizko murrizketa.

Hala ere, aipatutako egoeren bilakaera laster aldatzen ez bada, kreditu berriak “Ez erabilgarri” egoerara aldatzea proposatuko da, edo egoera aldekoa bada “Erabilgarri” egoerara itzultzea.

Azaldutakoa ikusirik, Udalbatzari aurkezten zaio ondorengo

PROPOSAMENA

Eranskinean jasotako aurrekontu-kredituak, 936.928,62 euro guztira direnak, “ez erabilgarriak” izendatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzia hauek azaldu dituzte:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Ha habido varias modificaciones hasta que se ha subido este documento sobre qué tipo de partidas se van a ver comprometidas por esta situación. Aparece la partida de convenios y dice que van a verse afectados 93.608 €, pero no indica cuáles.”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Orokorrean ez. Saiatu garena da elkarreana mantentzen. Adibidez hor egongo da “Ehun milakoa” (10.000,00 €) eta hor ez da gasturik izango. Guk ere ez dakigu abuztutik bueltan zein egoerarekin aurkituko garen, zein ekintza egingo diren, zeintzuk ez.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Proposamenarekin adostasuna azaltzen dugu. Azkeneko aldeketi buruz esan, batzorderako azaltzen ziren kontzeptuak eta kendu direnak zeintzuk diren ikusita esan, batzuk guk egindako

ekarpenei buruzkoak direla. Aurrekontuak osatzeko elkarlana egiten den bezala, kasu honetan ere ez zen soberan izango hartu-eman txiki bat, batez ere denon artean landutako abiapuntutik datorrelako. Honek pista bat ematen digu esateko datorren urteko aurrekontuak ezberdinak, konplikatuak eta behintzat orain arte bezalakoak ez direla izango. Diru gutxiagorekin nor banako gehiago izango dira. Prozedura bat jarri da mahai gainean gure eta gobernuaren aldetik eta lan ildo hori mantendu egin beharko litzateke.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Egunen egun ari gara aldatzen. Sarreraren aurreikuspenak markatzen du batez ere. Hasieran aipatu dudan plan ekonomiko horretatik saiatu gara potoloenak kentzen baina berreskuratu direnak da adostasun bat dagoelako eta ikusten delako zerbait egiteko aukera dagoela. Banan banan aztertu ditugu eta egunero ari gara aldaketak egiten. Elkarlana ados baina, gure ere zaila egiten ari zaigu, orain jarri eta orain kendu. Izpiritua da, ahal den neurrian kontzeptuak mantentzea. 2021erako ere, saiaturako gara kontzeptuak markatzen zeren eta %10eko jaitziera hori aurrekontuan aurreikusi egin beharko da baina, horrek ez du kentzen datorren urtean ere dugun gerakinatik tira egitea proiektu batzuk aurrera ateratzeko.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta aho batez onartu da proposamena.

D.- BEASAINGO UDALEKO ENPLEGATU PUBLIKOEN MODALITATE PRESENTZIALA ETA EZ-PRESENTZIALA BARNE HARTZEN DITUEN SISTEMA MISTO BATEN BITARTEZ ZERBITZUA TELELANAREN BIDEZ EMATEKO ARAUAK. 2020PEBO0046

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordeko proposamena:

“AURREKARIAK

Arau-aurrekari garrantzitsuenen artean, aipatzekoak dira Telelanari buruzko Europako Esparru Akordioa, 2002ko uztailaren 16an Bruselan sinatua, eta Langileen Estatutua bera. Hain zuzen ere, Indarrean dagoen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Langileen Estatutuaren Legearen testuategia onartzen duenak, "Urrutiko lana" deritzona definitzen eta arautzen du. Era berean, martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuak, enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko premiazko neurriei buruzkoak, 34. artikulua aldatzen du, 8. puntua sartuz eta adierazten da langileek eskubidea dutela lanaldiaren iraupenaren eta banaketaren egokitzapenak eskatzeko, lan-denboraren antolamenduan eta prestazio-moduan, urrutiko lana barne, familia eta lana bateragarri egiteko duten eskubidea gauzatzeko. Egokitzapen horiek arrazoizkoak eta proportzionatuak izan beharko dute, langilearen premiei eta enpresaren antolamenduko ekoizpen-premiei dagokienez.

Alde batera utzi gabe Administrazioako lan-kontratuko langileei zuzenean aplikatutakoak TRET, enplegu publikoaren esparru globalenean, nabarmendu behar dugu Herri Administrazioen Ministerioaren ekainaren 21eko APU/1981/2006 Agindua, ministerioetako sailetan telelaneko programa pilotuak ezartzea sustatzen duena. Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuari dagokionez (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategia onartzen duena), bizitzaren pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzen

laguntzeko neurriak hartzeko eskubidea ezartzen du gutxienez. Azkenik, dagoeneko indargabetuta dagoen ekainaren 22ko 11/2007 Legearen azken xedapenetatik seigarrenak, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoak, "Telelana arautzeko gaikuntza" jasotzen du, Estatuko Administrazio Orokorrean telelanaren baldintzak arautzeko aginduzko agindua.

Eta hori guztia, Udaleko lana antolatzeari buruz Alkatetzak dituen eskumenen barruan hartzen dituen neurriak kontutan hartu gabe.

Telelana aurrez aurrekoa ez den lan-aukera bat da, eta, horren arabera, langileek beren lanpostuetako eduki funtzionalaren zati bat etxetik edo ohiko lantokian aurrez aurreko lana ez den beste leku batetik garatzen dute, betiere informazioaren teknologiek horretarako aukera ematen badute eta lan-arriskuen prebentzioari, gizarte-segurantzari, pribatutasunari eta datuen babesari dagokienez eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Telelanak onura nabarmenak dakarzkie ardurapean adingabeak dituzten pertsonen, zaintzak behar dituzten adinekoei edo desgaitasunen bat edo gaixotasun larria duten senideak dituztenei; izan ere, etxetik bertatik lanaldi osoak egiteak norberaren bizitza, familia eta lana uztartzea errazten du.

Helburuei dagokienez, eta ez lantokian egoteko denborari dagokionez, lana sustatzea, laneko absentismoa murriztea, langileen konpromisoa eta motibazio-maila handitzea, lanerako mugikortasuna hobetzea, eta, batez ere, hura zailtzen duten osasun-alderdiak edo desgaitasunak daudenean edo lanerako/etxebizitzarako distantzia luzeak daudenean, horiek guztiak kontuan hartu beharreko helburu garrantzitsuak dira.

Hala ere, kontuan hartu behar da telelana ez dela soilik lantokitik kanpo egotea, funtzioak betetzeko antolaketa-aldaketa baizik, eta Beasaingo Udaleko lanpostu guztiak ezin direla modalitate horretan sartu. Horregatik, funtsezkoa da baloratzea zein postu egokitu daitezkeen antolaketa-eskema berri horretara.

AKORDIO PROPOSAMENA

Aurreko guztiagatik, langileen ordezkariekin bildu ondoren (2020ko ekainaren 10eko akta), Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Alkatetzak ondorengo akordio proposamena egiten dio udalbatzari:

Lehenengoa.- Beasaingo Udaleko Langile publikoek modalitate ez-presentzialean zerbitzua ematea arautzea, Beasaingo Udalean telelanaren bidez. Erabaki honen eranskin gisa doa.

Bigarrena.- Telelanaren bidezko zerbitzu-eskaerak Alkatetzak onartu eta ebatziko ditu.

Hirugarrena.- Erabaki honek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek jaso dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Este es un team bastante popular hoy en día. Bien es sabido que también se está elaborando una normativa estatal, pero hay una disparidad con los sindicatos, disparidad que también nosotros tenemos con la propuesta que se está presentando, concretamente en lo

referido al punto 15: gastos derivados de la prestación del servicio en el domicilio. Se indica que esos gastos correrán a cargo del solicitante y siempre que existan equipos suficientes se le procurarán. Con eso no estamos de acuerdo. Pensamos que los gastos los debe asumir el Ayuntamiento, ya que como se indica al principio, el teletrabajo es el modo de garantizar al trabajador la conciliación y la igualdad. Si una de las barreras es que el equipo del solicitante no está preparado, el ayuntamiento debería procurárselos. En cuanto a los gastos de luz e internet, nos encontramos con la dificultad que conlleva el cálculo de los mismos, pero por comparativa con el gasto general sin el teletrabajo, se podría calcular, ya que el trabajo no presencial también significa un ahorro para el Ayuntamiento.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Konfinamenduaren garaia adibide oso ona izan da. Muturreko egoera batean lana eginda etxetik. Nik uste dut aukera bat bezala ikusi behar dela eta aurrera egin, edo oztopoak bilatu eta bertan behera utzi. Telelana langilearentzat aukera bat da, baina inor ez da behartzen. Dokumentu hau bizia da eta gainera horrela izan behar du. Badaude langileak hau behar duena eta zoritxarrez emakumeak. Araudi honi esker lanaldiaren erredukzioa hartzeko beharrik ez luke izango. Murrizketa ez eskatzea eta etxetik lana egiteko aukera izatea, hobekuntza bat dela esango nuke. Gauzak afinatzeko egongo dira baina, ez dut uste hori denik erroa. nik uste dut honek, benetako saltoa ematen duela norberaren antolaketan, baina langilearentzat onerakoa dena. Egundoko onura ekarri dio Udalari etxetik lan egite horrek eta gainera nik uste dut txukun erantzun dela. Bere gabezia guztiarekin, guk hau da proposatzen duguna.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Yo no he dicho que estemos en contra de regular el teletrabajo. Lo que no compartimos es el punto que he indicado. El teletrabajo en durante el estado de alarma ha sido ensayo que ha permitido elaborar esta regulación, pero lo que aquí se propone no es para un período determinado, sino que tiene visos de continuidad. El texto estará sometido a modificación teniendo en cuenta las diferentes leyes que se aprueben, pero nosotros lo que perseguimos es que esta regulación se aplique con flexibilidad. No estamos en contra de su contenido en general, pero es imprescindible que se modifique el punto. 14.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Gertatutakoarekin langilea behartu egin da etxetik lana egitera eta erantzun egin da. Horrek guri pista bat ematen digu. Gehiengo handi batek aukera hori ondo ikusi du. Hau borondatezkoa da. Inori ez zaio ordenadore bat erosi araziko horretarako. Ez dut uste inork esango duenik: *argi indarrean 3 € ordaindu ditut eta hori zor didazu.*” Lehentasuna da langile batek aukera izatea, gurasoak edo umeak zaintzeko, etxetik lana eginez. Beste gauzak orrazten joan beharko dugu baina, marra potoloa ez dago hor.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Bai batzordeak eta baita hemen langileak jasoko dituen onurak ari gara aipatzen, baina gure ustez Udala ere onuraduna da, ahalbidetzen delako langileak lanaldi murrizketa edo eszedentzia ez hartzea. Beraz, eman-jaso horretan Udalak bere ardura du ahalik eta araudi onena onartzen. EH Bilduk gai honen inguruan bost proposamen egin ditu eta horietatik hiru onartu dira, hain zuzen ere, 14. artikuluan jaso direnak: lanpostuaren ebaluazio arriskua egitea, langileak jaso beharreko formazioa eta deskonexio digitala. Honen orde z jaso da, 4 orduko kointzidentzia izatea udalarekin. Beste bi puntuak Evak aipatu dituenak dira; sortu daitezken gastu teknikoak (azken momentuan, lerrokada bat aldatu da) eta lanpostu horrek sor ditzaken arriskuak. Hori ere langilearen esku egoten jarraitzen dute. Lehen esanda bezala, Udalak abantailak jaso behar ditu eta justua da, gastuak Udalak bere gain hartzea. Lehen aipatu diren Estatuko araudien hainbat zirriborroetan, horrela da. Oposizioko bi alderdiek eta langile batzordeak (aktan horrela

azaltzen da) puntu horretan ados egonda, uste dut 15. artikulua aldatu egin beharko litzatekeela, gastuak Udalaren kontura izateko. Araudi hau aurrera pauso bat da baina, guretzat ez da nahikoa.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Betekizunetan aipatzen da lan modalitatean, presentzialki ez garatzeko modukoa izan behar duela. Demagun lan modalitatea presentziala izan behar duela. Kontziliatzeko arazoak dituen langile horrekiko, zerbait aurreikusi da?. Bakarrik arautzen du presentziala izan ez daitekena. Kontziliazioa bermatzea bada?. Kontuan izanda arreta presentziala izan behar dela, adibidez, iGunean dagoen langile batek kontziliatzeko arazoak baditu, Udalak irtenbiderik emango lioke?.”

Alkatea jauna (EAJ-PNV): “Niretzat galdera garbiagoa da galdera. Adibidez, udaltzain batek ezin izango luke. Obretako langile batek ezin izango du etxetik lana egin. Batzuetan ezin izango da. Beste kasu batzuetan, egunerokotasunak erakusten diguna da, iGunearen kasuan, lan motaren arabera aukerak eman daitezkeela etxetik lana egiteko. Adibidez, telefono deiak hartzeko. Horregatik esaten dut dokumentu bizia dela, zeren eta teknologia menderatzen dugun heinean, pausoak eman daitezke. Asmoa ez da langileez aprobetxatzea.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 7 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu dira, ondorengo arauak:

BEASAINGO UDALEKO ENPLEGATU PUBLIKOEK ZERBITZUA EMATEKO SISTEMA MISTOA ARAUTZEN DUTEN ARAUAK, AURREZ AURREKO MODALITATEA ETA TELELANAREN BIDEZKO MODALITATE EZ-PRESENTZIALA BARNE HARTZEN DITUENA.

Lehenengoa. Xedea eta aplikazio-eremua.

Akordio honen xedea da enplegatu publikoek modalitate ez-presentzialean zerbitzua ematea arautzea, Beasaingo Udalean telelanaren bidez.

Programa hau Beasaingo Udaleko funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen Udalhitz akordioaren aplikazio-eremuan sartzen diren funtzionarioei aplikatuko zaie.

Bigarrena. Telelanaren kontzeptua

Telelana aurrez aurrekoa ez den lan-aukera bat da, eta, horren arabera, langileek beren lanpostuko eduki funtzionalaren zati bat etxetik edo aurrez aurrekoa ez den beste kokaleku batetik garatzen dute, informazioaren teknologiek horretarako aukera ematen badute.

Zerbitzuak emateko modalitate hori borondatezkoa izango da.

Hirugarrena. Betekizunak.

Modalitate ez-presentzial honetan zerbitzuak emateko eskatu ahal izango dute programa honen aplikazio-eremuan sartzen diren langileek, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

A) Zerbitzu aktiboan egotea.

B) Lan-modalitate ez-presentzialean garatzeko modukoa den lanpostu bat betetzea.

Ezaugarri hauek dituzten lanpostuak betetzen dituzten enplegatu publikoen eskaerak ez dira baimenduko:

- Erregistroko eta herritarrentzako arreta eta informazioko bulegoetan dauden postuak. Lan horretan langile bat baino gehiago egonez gero, horietako batek edo batzuek telelanaren modalitatea txandaka baliatzeko aukera azter daiteke.

- Aurrez aurreko zerbitzuak ematea eskatzen duten eginkizunak dituzten lanpostuak. Aurrez aurreko zerbitzutzat hartzen dira enplegatuaren presentzia fisikoarekin soilik erabat berrmatuta daudenak.

C) Lanpostuari dagozkion eginkizunak telelanaren modalitatean garatzeko behar adina ezagutza informatiko eta telematiko, teoriko eta praktikoa izatea.

D) Telelanaren lekuan komunikazio-sistemak izatea edo edukitzeko konpromisoa hartzea, Udalak zehazten dituen ezaugarriekin, sistemen erabilgarritasun teknologikoaren eta segurtasunaren arabera, telelanaren modalitatea hasten den egunean.

E) Arloko buruaren eta/edo arloko zinegotzi arduradunaren adostasuna izatea. Bestela, idatziz arrazoitu beharko da.

Enplegatu publikoak modalitate ez-presentzialean lan egiten duen denbora guztian bete beharko ditu artikulua honetan ezarritako betekizunak.

Laugarrena.- Telelana egiteko baimen-prozedura.

Zerbitzua lan-modalitate ez-presentzialean emateko baimen-eskaerak Alkatetzara zuzenduko dira.

Eskatzailearen saileko arduradunak eskaerari buruzko txostena egingo du.

Informatika-zerbitzuak txosten tekniko bat egingo du baliabide telematikoen premiei buruz eta telelanaren lekuaren konektibitatearen bideragarritasunari buruz, bai eta bere funtzioak konexio mota horren bidez horretarako eskatzen diren prestazio teknikoekin garatzeko aukerari buruz ere.

Bi txostenak ikusita, eskaera jaso eta gehienez ere 15 eguneko epean, organo eskudunak telelanaren eskaera baimentzeko edo ukatzeko ebazpen arrazoitua emango du.

Bosgarrena.- Baimentzeko lehentasunezko irizpideak.

Hainbat enplegatu publiko badaude zerbitzua aurrez aurrekoa ez den modalitatearen bidez eman nahi dutenak eta sail berekoak badira, eta administrazio-antolaketari lotutako arrazoiengatik ezin bazaie lan-modalitate hori guztiei baimendu, txandakatzeko aukerak agortuta edo eraginpeko langileak eta Administrazioa ados jarrita, honako inguruabar hauek baloratuko dira lehentasunez:

A) Familia eta bizitza pertsonala eta lana bateragarri egiteagatik:

A.2. Seme-alaba adingabeak izateagatik, eskala honen arabera:

- Urtebete edo gutxiago: 4 puntu bakoitzeko.
- Urtebetetik 3 urtera: 3,5 puntu bakoitzeko.
- 3 urtetik 6 urtera: 3 puntu bakoitzeko.
- 6 urtetik 12 urtera: 2,5 puntu bakoitzeko.
- 12 urtetik 16 urtera: 2 puntu bakoitzeko.
- 16 urtetik 18 urtera: 1,5 puntu bakoitzeko.

A.3. Ezkontideak edo Erregistroan inskribatutako bikotekideak desgaitasunen bat izateagatik edo bere kabuz baliatu ezin izateagatik: 5 puntu.

A.4. Ezintasuna duen edo bere kabuz baliatu ezin den odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko ahaide bat zuzeneko kargura izateagatik, betiere ordaindutako jarduerarik egiten ez badu:

I. gradua. Mendekotasun moderatua: pertsonak laguntza behar duenean eguneroko bizitzako oinarritzko hainbat jardura egiteko, gutxienez egunean behin, edo laguntza moderatua behar duenean autonomia pertsonalerako. 3 puntu

II. gradua. Mendekotasun larria: pertsonak eguneroko bizitzako oinarritzko hainbat jardura egiteko laguntza behar duenean, egunean bi edo hiru aldiz, baina zaintzaile baten laguntza iraunkorrik behar ez duenean, edo autonomia pertsonalerako laguntza zabala behar duenean. 4 puntu

III. gradua. Mendekotasun handia: pertsonak eguneroko bizitzako oinarritzko hainbat jardura egiteko laguntza behar duenean eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentzoriala erabat galtzen duenean, beste pertsona baten laguntza ezinbestekoa eta etengabea behar du edo autonomia pertsonalerako laguntza orokorra behar du. 5 puntu

B) Guraso bakarreko familia izateagatik: 2 puntu.

C) Mugigarritasunarekin zerikusia duen edo mugikortasunari eragiten dion desgaitasunen bat duten enplegatu publikoa izateagatik:

- Desgaitasuna % 45etik gorakoa bada: 5 puntu.

- Desgaitasuna % 33tik % 45era bitartekoa bada: 3 puntu.

D) Mugikortasunari eragiten dion osasun-alterazio bat izateagatik, non joan-etorriak murritzeak nabarmen lagunduko duen osasuna hobetzen, txosten mediko baten bidez egiaztatuta, edo osasun-baldintzatzailearen bat izateagatik, telelanaren modalitatea baimentzeak funtzioak hobeto betetzen lagunduko baitu, betiere txosten mediko baten bidez egiaztatzen bada: 3 puntu.

F) Lanpostuarekin lotutako edo araututako ikasketak egiten aritzeagatik: puntu 1.

G) Genero-indarkeriaren biktima izateagatik: 4 puntu.

Eskabidearekin batera, aipatutako inguruabarren agiri bidezko egiaztapena aurkeztu beharko da.

Seigarrena.- Ukatzeko arrazoiak.

Zerbitzua lan-modalitate ez-presentzialean emateko baimen-eskaerak ukatu egingo dira honako arrazoi hauetakoren batengatik:

A) Langileak akordio honetako hirugarren arauan ezarritako baldintzak ez betetzea.

B) Zerbitzuaren beharrak behar bezala ez betetzea, eskatzailea atxikita dagoen organoaren txostenean egiaztatuta.

C) Azpiegitura teknologikoen mugak edo telelanaren lekuan konektibitatea bermatzeko ezintasuna, informatikako teknikariaren txostenean egiaztatuta.

D) Antolaketa-arrazoiak, behar bezala egiaztatuta.

Zazpigarrena.- Telelanaren iraupena eta asteko lanaldiaren banaketa.

1. Telelanaren iraupena interesdunaren eta Udalaren artean adostuko da. Horretarako, interesdunak eskabidea aurkeztu beharko du, eta bere saileko arduradunaren txostena hartuko da kontuan.

2. Telelana amaitzeko arrazoiak:

A) Zerbitzuaren beharrengatik.

B) Ezarritako helburuak ez betetzeagatik.

C) Baimena ematea eragin zuten baldintzak eta betekizunak nabarmen aldatzen dituzten bat-bateko arrazoiengatik.

D) Langilea eta Administrazioa ados jartzen badira.

Prozedura izapidetzean, entzunaldia emango zaio eragindako pertsonari. Atal honetan adierazitako arrazoietakoa bat betetzen dela egiaztatu ondoren, alkatetzak ebazpen arrazoitua emango du, zerbitzua lan-modalitate ez-presentzialean emateko baimena baliogabetzeko.

Justifikazio-arrazoiak daudenean, langileak lan-modalitate ez-presentziala aurreikusitako amaiera-data baino lehen amaitzeko eskatu ahal izango du.

Horretarako, alegatutako arrazoia astebete lehenago jakinarazi beharko du, eta alkatetzak ebazpen arrazoitua emango du, lan-modalitate ez-presentzialean zerbitzua amaitzeko.

3. Lanaldiaren banaketa

Alkatetzak erabakiko du lanaldia modalitate presentzialaren eta ez-presentzialaren artean nola banatuko den, saileko arduradunaren eta eskatzailearen iritzia entzun ondoren.

Telelanaren modalitatean egindako ordutegiak lanpostuaren egutegirako zehaztutako eguneko lanaldiarekin bat etorri beharko du, gutxienez, 4 orduz.

Langilearengan edo zerbitzuaren beharizanetan eragina duten gorabeheren ondorioz, hileko lanaldiaren banaketa aldatu ahal izango da modalitate presentzialaren eta ez-presentzialaren artean, eta/edo telelanaren ehunekoa aldi baterako murriztu ahal izango da.

Zortzigarrena.- Aldi baterako etetea

Aurrez aurrekoa ez den lan-modalitatean zerbitzua emateko baimena aldi baterako eten ahal izango da, enpleguari edo zerbitzuaren beharrei eragiten dieten gorabeherengatik.

Espediente hori izapidetzean, entzunaldia emango zaio eragindako pertsonari. Justifikazio-inguruabarrak egiaztatu ondoren, alkatetzak baimena etetea ebazpen arrazoitua emango du, etete-epea adierazita.

Bederatzigarrena.- Eskubideak eta betebeharrak.

Zerbitzuak telelan-modalitatean ematen dituzten langileek borondatez egingo dute, gainerako langileen eskubide eta betebeharrak berberekin.

Telelanak ez du aldaketarik ekarriko lan-baldintzei eta lanbide-karrerari dagokienez.

Hamargarrena.- Modalitate presentzialean sartzea.

Zerbitzua modalitate ez-presentzialean ematen aurretik, enplegatu modalitate presentzialean sartuko da, zerbitzua telelanaren bidez ematen hasi aurretik egunean zuen lanaldi-erregimenarekin.

Hamaikagarrena.- Zereginak eta emaitzak zehaztea.

Antolakuntza eta Giza Baliabideen Arloak Beasaingo Udalaren espaziorako sarbidea emango du modalitate ez-presentzialerako, eta horretarako prestatutako tresnak eta jarraibideak erabili beharko dira.

Lanaldi presentziala eta ez-presentziala bateratzeko jarraibideak

1. Egin beharreko lanak eta lortu beharreko emaitzak

Lanaldi ez-presentzialean egin beharreko zereginak eta lortu beharreko emaitzak udal-sail bakoitzeko arduradunak eta langileak adostuko dituzte. Zeregin horiek aldian-aldian berrikusi eta berrezarriko dira telelana indarrean dagoen bitartean. Zereginak dagokion arloan ezarritako helburuen programarekin lotu beharko dira.

Lanaldi ez-presentzialean edo presentzialean dagoen langile bakoitzak dokumentu bat bidaliko dio sail bakoitzeko buruari ostiraleko azken orduan, astean zehar egindako zereginen eta emaitzen berri emateko. Pertsona horrek bildu eta dagokion zinegotzi arduradunari bidaliko dizkio. Dokumentu bakoitzaren txosten-eredua sail horretako zinegotzi arduradunarekin adostuko da.

Sail bakoitzeko buruak behar diren neurriak hartuko ditu lanaldi ez-presentzialean edo presentzialean dauden langileek modu koordinatuan lan egin ahal izan dezaten, eta, hala badagokio, astean zehar lanaldi mota txandakatuz, edo bakoitzaren eginkizunak zehaztuz eta, hala badagokio, behar berrietara egokituz.

Modalitate ez-presentzialeko lanaldian egin beharreko zereginak eta lortu beharreko emaitzak saileko arduradunak, langileak eta alkateak adostuko dituzte.

2. Komunikazioa

Lanaldi presentzialean edo ez-presentzialean lan egiten duten langileen arteko komunikazioa nahitaezkoa izango da, bai txat bidez, bai bideokonferentzia bidez. Horretarako, komunikazio birtuala erraztuko duen aplikazio bat eskainiko du Udalak, langile guztiek eskuratu ahal izan dezaten.

Lanaldi ez-presentzialean dauden langile guztien mahai gaineko telefonoa bakoitzaren telefono mugikorrera desbideratuko da lan-denboran, erantzuna eman dezan.

Hamabigarrena. Ezarpena, jarraipena, kontrola eta gorabeheren ebazpena.

Antolakuntza eta Giza Baliabideen Arloa arduratuko da sistema ezartzeaz eta behar bezala funtzionatzeaz, sortzen diren arazoak proposatu eta horiei irtenbidea, formazioa, aholkularitza emango du eta hobetu beharreko arloak hautemateko behar den informazioa lortuko du. Telelana egiten duen pertsonak egindako lanaren kantzitatea eta kalitatea ez ditu inolaz ere aztertuko. Eginkizun hori zuzeneko arduradunena baino ez da.

Hamahirugarrena.- Datu pertsonalen babesia.

Zerbitzua modalitate ez-presentzialean ematen duen telelangileak datu pertsonalen babesari buruzko araudia beteko du, eta ezagutzen dituen gaietarako behar den erreserba mantenduko du, modalitate presentzialean betetzen dituen eginkizunen baldintza berberetan.

Hamalagarrena.- Laneko arriskuen prebentzioa.

Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak telelanaren modalitatea erabiltzen duten langileei beren jardueraren arriskuen ebaluazioa emango die, bai eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan behar duten prestakuntza eta informazioa ere, laneko arriskuak saihesteko edo, saihestezinak badira, minimizatzeko eta behar diren prebentzio-neurriak aplikatzeko.

Era berean, langile horiek prestakuntza-saio batera joan beharko dute, eta bertan adieraziko zaie nola egokitu behar duten beren lanpostua administrazio-bulegoetatik kanpo, bai eta datuak bistartzeko pantailak dituzten lanpostuetako segurtasunari eta ergonomiari buruzko beharrezko nozioak ere.

Prestakuntza-saioa joatea nahitaezkoa izango da, eta langileek eskuratutako ezagutzak egiaztatu beharko dituzte, dagokion probaren bidez.

Telelanaren modalitateari atxikitako langileek arriskuen ebaluazioan aurreikusitako neurriak aplikatu beharko dituzte beti, bai eta Prebentzio Zerbitzuak emandako prestakuntza eta informazioa ere, beren jarduerari ez ezik, beren lanpostuaren diseinuari dagokionez ere. Hala ere, Prebentzio Zerbitzuak laguntza eta aholkularitza emango die telefonoz behar dutenean.

Era berean, telelangileek telelana egingo duten tokiaren lanpostua aztertzeko eskatuko diote Prebentzio Zerbitzuari. Eskaera hori onartuko da Prebentzio Zerbitzuak etxean egotea beharrezkoa dela uste duenean.

Prebentzio Zerbitzuak lanpostuan neurri zuzentzaileak hartzea gomendatzen badu, telelangileen ardura izango da neurri horiek ezartzea.

Hamabosgarrena.- Azpiegitura teknikoa

Zerbitzu hori eskatzailearen etxean emateak dakartzan gastuak (argia, Internetarako konexioa) eskatzailearen kontura izango dira. Aurrekontu-kreditua eta/edo ekipo nahikoak badaude, beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituen ekipo informatiko bat jarriko da eskatzailearen eskura.

Hamaseigarrena. Dietak.

Telelanaren modalitatean zerbitzuak ematen dituzten eta kanpoko lana egiten duten egunetan, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan eta zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Dekretua hirugarrenez aldatzen duen ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuan araututako dietak jasotzeko eskubidea izango dute.

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

A.- GARABIDE ELKARTEAREKIN SINATUTAKO HITZARMENA: 2020AN DIRUZ LAGUNDUKO DIREN PROIEKTUAK.2017ESEP0010

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena:

“AURREKARIAK

- Beasaingo Udalak eta Garabide Elkarteak lau urterako lankidetza hitzarmena sinatu zuten 2017ko abenduaren 5ean.

- Hitzarmenean jasotzen da, hitzarmenaren iraupen aldian, urtero, Udal Osoko Bilkurak onartuko dituela urte horretan diruz lagunduko dituen proiektuak. Eta horretarako, Garabidek urte hasieran proiektu zehatzak aurkeztuko dituela Udalak ontzat eman ditzan.

OINARRI JURIDIKOAK

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 3. Artikulua.

- Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren horren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 2. Artikulua.

PROPOSAMENA:

Herritarrak batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egiten dio onar dezan:

1.- Beasaingo Udalak ondorengo proiektuak onartzen ditu 2020an diruz laguntzeko:

Yucatango maiak Euskal Herrian. Maia indarberritzeko ereiten: 32.095,00 euro

Yucatango eragile-sarea maia biziberritzeko estrategian formatzea da ekimen honen xedea. Euskal Herrian gauzatu beharreko prestakuntza saioa, hein batean, 2018an Yucatanen bertan eskainitako ikastaroaren segida ere bada. Orduko hartan Yucatango penintsulako hizkuntza-biziberritzeko prozesua zehaztu, sustatu eta gidatuko zuen aktibista taldea eratzea jo zen lehentasunezko zatia. Organigrama hori, giza taldea, osatuz doan honetan, haienezako Euskal Herriko esperientzia bertatik bertara indargarria izango dela iritzita, antolatu nahi da 2020ko esperientzia trukea.

Inportantea da lankidetza-bisita hau marko orokorrean kokatzea, alegia, jakitea urterako Biziberritze plan baten atala dela, komunitate maiarentzako proiektu integral baten estrategietako bat.

Ekuadorreko kitxuak. Kitxua Biziberritzeko Estrategiak Nazioarteko I. Ikastaroa: 28.660,00 euro

Sisariy erakunde Kitxuak eta Garabide euskal erakundeak elkarrekin 8 asteburuko ikastaroa antolatu dute 2020ko urtariletik martxora Kitxua Biziberritzeko Estrategietan. 40 parte hartzaileek 120 eskola-ordu jaso dituzte 12 aditu kitxua eta 6 euskal adituren eskutik eta 18 irakasle horiek hizkuntzen biziberritzerako erakunde erreferentzialetako kide dira, hala nola, Radio Iluman edo Tinkunakuy kitxuen aldean edo Soziolinguistika Klusterra, Elhuyar Fundazioa, AEK, Andoaingo Udala eta Aiaraldea Ekintzen faktoria euskara biziberritzeko prozesuan. Formazio horretan 40 parte hartzaile estrategiko izan dira, norbere esparruan ardura karguak dituztenak, eragin biderkatzailea dutenak. Proiektu honek 28.660 euroko aurrekontua du, eta finantza entitate bat eta bost udalen laguntza izango du. Beasaini aurrekontuaren zati bat finantzatzeko eskatzen diogu.

Yucatango maia biziberritzen: hiru proiektu eta formazio bat online (*): 32.369,06 euro

Aurtengo urtea nola doan ikusita, Garabidek Yucatango maia biziberritzeko bidean beste proiektu batzuk bultzatzeko helburua ere hartu du. Blogen bloga, Waye mugimenduaren dokumentala zabaltzeko proiektua eta informazio koadernoak, dira besteak beste, proiektu horiek. Baina horrez gain, bada beste proiektu bat ere aurrean sortu, garatu eta burutuko duguna, eta hurrengo urteetan indartu nahi duguna: online formazio hizkuntza biziberritzeko estrategietan. Azken hori aurrean, bereziki, maia komunitateko aktibistei zuzendutakoa izango da 12 lagunek parte hartuko dute. Hala ere, online izateak baditu bere aldeak, eta gurekin harremanetan dauden beste komunitateetako hizkuntza aktibistei ere eskaintza egingo zaie. Guztira, beraz, online formazioan 20-25 lagun izango direla aurreikus dezakegu, eta hori koordinatzeko ardura eta ardura pedagogikoa duten beste 8-10 pertsona ere ariko dira, han eta hemen.

*** Oharra: Hirugarren finantzazio aukera hau aktibatuko da, solilik, lehenengo planteatzen den formazioa, Yucatango maiek Euskal Herrian egitea aurreikusten dena online egiten bada eta horrek aurrekontuan aldaketak suposatzen baditu.**

2.- Proiektu horiez gain Garabide Elkarteak ondorengo ekimenak garatuko ditu Beasainen:

a. Yucatango maien bisita udalerrira, bertako biziberritze-ibilbidea ezagutzeko.

- Besaingo plana ezagutu.
- Waye dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia.

b. Ikastetxeetan: proiektzioa eta solasaldia.

3.- Horiek egiteagatik 41.000,00 euro ordainduko dizkio Beasaingo Udalak Garabide Elkarteari. 32.800,00 euro proiektuak ontzat ematen direnean, eta gainerako 8.200,00 euroak dirulaguntza zuritutakoan.

4.- Dirulaguntza zurrizko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Diruz laguntzeko onartu diren proiektuen memoria, dirulaguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena. Zer jarduera burutu diren eta zer emaitza izan den adierazi behar dira.
- Proiektu horietan izandako gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda. Hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazi behar dira.

Dirulaguntza ematen duen organoak egiaztatuko ditu egoki deritzan eta diru laguntza behar bezala erabili dela zentzuz agerian uzten duten frogagiriak. Horretarako, onuradunari aurkeztutako ordainketa agiri guztien %10a aurkezteko eskatuko zaio.

Proiektuak onartzeko akordioan bertan adieraziko da zenbatekoa den proiektu bakoitzeko onartzen diren zeharkako gastu edo gastu orokorrak (zuritu beharrik ez dutenak). Portzentaje horrek inolaz ere ez du gaindituko proiektuaren kostuaren %10a.

- *Diruz lagundutako proiektuak finantzatu dituzten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.*

Zuriketa egiteko azken eguna 2021eko apirilaren 30a izango da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Yo no conocía la existencia de Garabide ni la existencia del convenio. Una vez analizado el mismo, se propone que el 1% del 25% de los ingresos del presupuesto se destinarán a ayudar a esta asociación. Estamos de acuerdo con los proyectos y con la subvención que se propone otorgar, pero en la situación en la que nos encontramos y teniendo en cuenta lo tratado anteriormente en relación a la adecuación del presupuesto, nos genera dudas, ya que se trata de una subvención de 41.000,00 €, similar a la del año anterior que eran 40.000,00 €. Este convenio está firmado pero lo que hay que tener en cuenta en lo sucesivo para firmar este tipo de convenios es que se tenga en cuenta la situación económica, porque ahora es el COVID, pero en lo sucesivo no sabemos que será. Debería ser convenios que permitan adaptarse a la situación. En cuatro años pueden pasar muchas cosas. Este no sé en qué grado se verá afectado, pero parece que en ninguno.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Batetik lau urteko hitzarmen bat da eta lotuta dago. Garapenerako lankidetzara bideratzen den %1 hori da. Behar gehiena dutenei %1a. Hori aldatzea proposatzen du alderdi sozialistak, garapenerako %1a kentzea?. Hau ez da elkarte batentzat. Herrialde honek erabiltzen du herrialde horietako nortasuna egonkortzeko. Kasu honetan hizkuntzaren bidez.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Yo no estoy proponiendo que se elimine. Es una crítica porque se trata de 40.000,00 € y hemos tenido que adaptar el presupuesto por la situación en la que nos encontramos. Estamos de acuerdo.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Dirua doa behar duten herrialdeetara. Hor ez bada gastatu behar. Non gastatu behar da?. Proposatzen duzuen da %1 horretatik kendu eta ez erabilgarri jartzea?.

Malu Vallés Fernández (EAJ-PNV): “El compromiso de este Ayuntamiento con la cooperación internacional siempre ha sido claro y llevamos más de 20 años estableciendo el 1% de nuestro presupuesto para proyectos de cooperación internacional y llevamos largo tiempo aprobando proyectos de Garabide. Uno de los derechos fundamentales de los pueblos es su identidad y la defensa de sus derechos lingüísticos. El 15 de nuestro presupuesto va destinado a temas de cooperación internacional y en concreto a Garabide. Otro proyectos suelen ser canalizaciones de aguas, de vertidos, ayuda al empoderamiento de mujeres en los territorios de Nicaragua. Yo creo que tenemos que apostar claro por la cooperación internacional y a

entender que muchos de los países en vías de desarrollo es por el uso que hacemos de sus recursos. Este es un momento malo pero hemos tenido otros ejercicios con crisis económica y este Pleno siempre ha apoyado la cooperación internacional. Ponerlo en duda sorprende, cuando todos hemos remado juntos en este asunto.”

Nerea Manzísidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Gu ados gaude eta beharrezkoak direla iruditzen zaigu horrelako proiektuak. Interesgarria izango litzateke, egitasmo berean zabalkundea indartzea. Guk ere ez genekien Beasaingo Udalak horrelako hitzarmena zuenik. Beraz, ondo legoke herritarrek ere ezagutzea.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Zuen alderdiak aho batez onartutakoa da. Guk gure esku ditugun baliabideak erabiltzen ditugu. Baldintza bat jarri genion hitzarmenari. Ikastaroak Beasainen ematen dira. Euskal Herrian izan diren esperientzien (euskara, kooperatiba mundua, etab), berri ematen saiatzen dira. Gaur egun bost bat mila hizkuntza badaude, hizkuntzalarik esaten dute mende bukaeran mila bat egongo direla. Horrek zer pentsatu eman behar du horrelakoak planteatzen direnean.”

Xabier Matarranz zinegotziak esan du lgartzan egin zela ekitaldia ezagutzera eman ahal izateko eta iazko jaietan ere egin zela.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

B.- OINARRIAK DIRULAGUNTZAK: MERKATARITZA, ZERBITZU ETA OSTALARITZA SEKTOREARI OHZAREN GAINEKO DIRULAGUNTZEN ETA AUTOESKOLA ETA AUTOBUS-ENPRESEI TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA. 2020MEPO0030

Ezagutzera eman da, Herritarren batzordeko proposamena:

“AURREKARIAK:

Ondorengoak kontuan hartuta:

1. *Udalak behin betiko onartu duela 2020-2022 epealdirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.*
2. *Aipatutako planeko helburu estrategikoren bat tokiko ekonomia sustatzea dela.*
3. *Dirulaguntza hauek COVID19ak eragindako kalteak arintzea eta tokiko merkataritza sustatzeko helburu estrategikoak betetzen dituenek une honetan, 2020ko oinarriak onartu behar dira.*

LEGERIA APLIKARRIA

-Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra subentzioak emateari buruzkoa.

PROPOSAMENA:

Herritarrek batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egitea:

Lehenik: *Merkatariei, zerbitzuetakoei eta ostalariei OHZaren zergaren gaineko dirulaguntzaren eta autoeskoletako eta autobus enpresari Trakzio Mekanikoko ibilgailuen Gaineko Zergaren gaineko dirulaguntzaren oinarriak onartzea eta deidaldi publikoa egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta.*

Bigarrenik: Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren (OHZ) 2020ko ekitaldiko kuota likidoaren %30a diruz laguntzea Udalak, betiere oinarri arautzaile hauetan jasotako baldintzak betetzen badira.

Hirugarrenik: Herriko autoeskolek eta Goierrialdea autobus zerbitzukoek Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko ekitaldiko kuota likidoaren %50a diruz laguntzea Udalak, betiere oinarri arautzaile hauetan jasotako baldintzak betetzen badira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzia hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “En el caso de las autoescuelas y autobuses entiendo que es porque los vehículos son su herramienta de trabajo. En el caso de los repartidores y comerciantes que utilicen el vehículo como herramienta de trabajo no sé si se ha pensado contemplar ahora o en un futuro el que se puedan beneficiar. Ellos también han estado con el trabajo suspendido.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Nik uste dut banatzaileek orokorrean lana egin dutela.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

C.- IGARTZAKO MONUMENTU MULTZOKO JAUREGIA, ERROTA, BURDINOLA ETA ERMITA KUDEATZEA ETA USTIATZEA. KONTRATUA PARTZIALKI ETENDA EGOTEAGATIK ORDAINKETA ETA KALTEORDAINAK. 2019BOCU0002

Ezagutzera eman da, Herritarren batzordeko proposamena:

“AURREKARIAK

1.- 2020-04-08. Plenoko erabakia kontratua partzialki etetzeari buruz 2020-03-14tik osasun krisia amaitua arte, alde zuzenetik kontratistak horrela eskatuta.

2.- 2020-05-27. Alkateak ALDABE S. Coop.ri egiten dion errekerimendua, kontratua 2020-03-14tik etenda egoteak eragin dizkion gastuak kuantifikatzeko eta justifikatzeko, adieraziz zeintzuk izan diren egindako lanak eta horiek burutzeko zenbat langile lanean jardun duten eta zein izan den dedikazioa.

3.- Maiatzaren 30eko 458/2020 SND Agindua non baimentzen da ekipamendu publikoen irekiera neurri batzuk errespetatuz.

Ekainaren 7ko 13/2020 Lehendakariaren Dekretua. Gehienezko aforoa zein da markatzen da (8. Artikulua. Kultur arloa).

4.- 2020-06-08. ALDABE S. Coop.ak idatzia aurkezten du 2020-03-14tik egindako lanen berri emanez, horiek burutzeko zenbat ordu sartu diren, horietan jardun duten langile kopurua (2), adierazi gabe dedikazioa eta erantzukizun zibileko polizaren gastuak eta prebentzio planareko gastuak ordaintzeko eskaera.

5.- 2020-06-12. Alkateak ALDABE S. Coop.ri egiten dion errekerimendu berria, nominen eta erantzukizun zibilaren ordainketak justifikatzeko.

6.- 2020-06-26. ALDABE S. Coop.ak errekeritutakoa aurkezten du.

7.- 2020-06-29. Kulturako teknikariak eta kontratuaren arduradunak, espedientean jasota geratzen den, txostena eman du kontratua partzialki etenda egon den bitartean (2020-03-14tik 2020-06-2ra bitarte) egindako lanei buruz eta ondorioztatu duena da, kontratua %38,91n bete dela eta lan horiengatik ordaindu beharrekoa, aldez aurretik faktura aurkeztuta, 7.715,06 €, BEZ barne da.

OINARRI JURIDIKOAK

COVID-19ren ondorioz eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34,1 artikulua adierazten du zein kontzepturengatik ordaindu behar den kalte-ordaina, kontratua etenda egon bada. Ondorengoak dira:

1.º Los gastos salariales que efectivamente hubiera abonado el contratista al personal que figurara adscrito con fecha 14 de marzo de 2020 a la ejecución ordinaria del contrato, durante el período de suspensión.

2.º Los gastos por mantenimiento de la garantía definitiva, relativos al período de suspensión del contrato.

3.º Los gastos de alquileres o costes de mantenimiento de maquinaria, instalaciones y equipos relativos al periodo de suspensión del contrato, adscritos directamente a la ejecución del contrato, siempre que el contratista acredite que estos medios no pudieron ser empleados para otros fines distintos durante la suspensión del contrato.

4.º Los gastos correspondientes a las pólizas de seguro previstas en el pliego y vinculadas al objeto del contrato que hayan sido suscritas por el contratista y estén vigentes en el momento de la suspensión del contrato.

En caso de suspensión parcial, los daños y perjuicios a abonar serán los correspondientes conforme al presente apartado de este artículo a la parte del contrato suspendida.

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34,8 artikulua:

A los efectos de lo señalado en el presente artículo, los gastos salariales a los que en él se hace alusión incluirán los relativos a las cotizaciones a la Seguridad Social que correspondieran

Kontratistak lau pertsonari dagozkien nominen ordainagiriak eta erantzukizun zibileko aseguruaren urteko ordainketa agiria aurkeztu ditu.

Ez dago bigarren atalari (fidantza eskudirutan dago) eta hirugarren atalari (aztergai dugun kontratuan ez dago gasturik) dagokion gasturik.

Langileen gastuari dagokionez, kontratuaren zati bat gauzatzeari dagozkion lanak bi langilerekin egin ditu (ikusi 2020-06-8an aurkeztutako idazkia). Ondorioz, bi langileekiko dagokien kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dute elkar tearen administratzaileak izan arren, "bazkide-langile" izaera dutelako, 2003-02-19ko kooperatiba eratzeari buruzko eskrituraren arabera.

Pleguan eskatzen zen erantzukizun zibileko aseguruua. 1.063,90 €/urteko ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu da. Beraz kontzeptu honegatik ordaintzea dagokiona da, 221,65 €.

Horren ondorioz, Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten zaio, kontratu honen organo kontratazioa delako:

Lehenik. Aldabe S. Coop. sozietateari ordaintzea kontratua partzialki etenda egon den aldian emandako zerbitzuen ordainketa gisa, hau da, 2020-03-14tik 2020-06-2ra, biak barne, **7.715,06 euroko zenbatekoa, BEZ barne.**

Horrekin, ontzat ematen da 2020-06-03ko data, jarduera osorik berriz hasteko datatzat hartuta.

Bigarren. ALDABE S. Coop.ri kalteordain modura ordaintzea kontratua partzialki etenda egoteagatik 2020-03-14tik 2020-06-2ra biak barne, **6.540,16 €ko kopurua**, kontzeptu eta kopuru hauek kontuan izanda:

1.- Pertsonala:

- ✓ Soldatak: 6.318,5 € (ez dira Gizarte Segurantzako kuotak kontuan hartzen, kontratistak ez dituelako justifikatu ordaindu izana).

2.- Erantzukizun zibilaren aseguruagatik: 221,65 €

Bigarren. Enpresa kontratistari erabakiaren berri ematea, eta erabakiaren aurka jar daitezkeen errekurtsoak jakinaraztea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

4.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

A.- BIZITEGI-ERABILERAKO LURZATIETARAKO ERAIKUNTZA-ORDENANTZA OSAGARRIA: AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA EBAZTEA ETA BEHIN BETIKO ONARTZEA.

Lurralde batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

I.- 2020-02-27. Udalbatzaren erabakia, bizitegi-erabilerako lurzatietarako eraikuntza-ordenantza osagarriari hasierako onespena ematekoa.

II.- 2020-03-05. GAO n argitaratzea, 30 egun balioduneko epean alegazioak aurkez daitezkeela adieraziz.

III.- 2020-04-16. Elena Irastorza Lasa andreak aurkeztutako alegazioak ondorengo adieraziz:

- Ordenantza onartuta, Errekarte I 32 Areako R-3.3 lurzatia eraikitzeke emandako lizentziak legeztatu nahi dira.
- Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegian inpuinatutako udal-jarduketa zuritzeko saiakera (48/2019 prozedura arrunta).
- Gehiegizko aprobetxamendua dagoenez, "Plangintza aldatu" egiten da.
- Hainbat epaietan oinarritzen da esateko plangintza-aldaketak botere-desbideratzea dakarrela, legearen aurkako jarduketak eta tratamendu pribilegiatua dakartzalako, berdintasun-printzipioa urratuz eta dispentsazio-erreserbaren debekua ezarriz.

IV.- 2020-07-20. Jendaurrean jartzeko epearen amaiera (03-14tik 2020-05-31ra, biak barne, administrazio-epeak etenda egon ziren alarma-egoeragatik).

V.- Idazkaritzako txostena, aurkeztutako alegazioak ez onartzeko proposatuz.

OINARRI JURIDIKOAK

- onartzeko eskumena duen organoa: Udalbatza Osoa apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22,2d) artikulua).

- Onartzeko quoruma (apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.1) artikulua): Gehiengo soila.

Horren ondorioz, kontuan izanda aurrekari nahiz oinarri juridikoak, Lurralde Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenengoa. Elena Irastorza Lasa andreak aurkeztutako alegazioa ezestea, Idazkaritzaren txostenean azaldutako oinarrien arabera.

Bigarrena. Behin betiko onartzea "bizitegi-erabilerako lur-zatietarako eraikuntza-ordenantza osagarria".

Hirugarrena. Behin betiko onespeneraren erabakia GAOn eta Gardentasunaren Atarian argitaratzea."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): "Guk batzordean azaldu genuen gure zalantza. Regulazioa beharrezkoa ikusten dugu, noski, baina kasu honetan ordenantza osagarria tramitatzeak zalantza sortzen digu zenbait eraikigarritasun gehiago eramatea egin ote den. Bizilagunak aurkeztutako idatzian ere susmo hori azaltzen du."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Ez da teknikoek esaten dutena eta udal idazkariak ere bere txostenean esaten duena. Aipatzen dena batez ere da, beti interpretazio berdina izan dela eta ordenantza hori egin da kontzeptuak zehaztu interpretatzerakoan zalantzatik ez izateko. Arkitekto ezberdinak pasatu dira eta interpretazioa beti berdina izan da."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da bizitegi-erabilerako lurzatiatarako eraikuntza-ordenantza osagarria.

5.- BERRI EMATEA:

- 2020ko ekainaren 22tik uztailaren 26ra bitarte emandako Ebazpenak.
- Kontratu txikiei buruz, 2020ko ekainaren 22tik uztailaren 26ra bitarte emandako ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, adierazitako ebazpenak.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

UDALEKUAK

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Orain dela hilabete bat udalekuetako kontingentzi plana eskatu genuen hainbat foroetan. Atzo Aldundira deituta jakinarazi zitzaigun, Txilibutxofek bidali zuela ekintza burutzeko beharrezko dokumentazioa. Esan zitzaigun erabaki politiko bat dela eta baina Ametsek ez zigen eman kontingentzia plan hori. Herritarrak batzordeburuari eskatu zitzaion eta naiz eta berak esan bazegoela, ez dugu jaso. Zori txarrez udalekuak bertan behera geratu ziren baina zorionez udalarentzat bertan behera geratu zirela, zeren eta larria iruditzen zaigu ez teknikariak ez arduradun politikoak, ez inork kontingentzi plan horren berri ez izatea. Guk jakin nahi genuena zen edozein momentuan zerbait gertatu ezker, nola jardun behar zen eta inork ez digu esan. Musika eskolarako, kiroldegirako aurreikusten ari dira kontingentzi planak eta aldiz, udalekuetarako berririk ez zenuten. Arduragabekeria iruditzen zait egon garen egoeran, udalekuaren arduradunak plan hori ez izatea. Futboleko udalekuetan berdin gertatu da. Pelota pasatzen ibili zarete.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Hasi beharko genuke aztertzen EH Bikduren eskaera zein den, zeren eta hor ere egon dira aldaketak. Hitzek hitz irakurriko dut: *“udaleku irekien inguruan EH Bildutik eskaera luzatzen diogu udal gobernari eta udalekuak kudeatuko dituen Txilibutxof elkarteari. Segurtasun eta babes neurrien protokolo zehatza. Honen jarraipena nork nola egingo duen. Elkargunetan jardueren berezko tresnen erabilera eta desinfektazioa nola egingo den. Higiene protokolo bat. Segurtasun protokoloa garatzeko beharrezko materialen zerrendatzea. Haurren taldekatzeak nola egingo diren azaltzen duen organigrama. Erabiliko dituzten azpiegituren zerrendatzea, aforoak. Prebentzio mailan formaziorik balute, hau egiaztatzeko agiria, sexu deliturik ez izatea ziurtatzen duen agiria derrigorrezkoa da umeei jarduteko, udalekuetako koordinatzaile datuak, begirale ibiliko diren titulazioa eta esperientzia agiriak, udal eskaintzaren proposamena. Bertan hauek jaso beharko dira: kronograma zehatza, izen ematea eta prestaketa, taldekatzeak egiteko irizpideak, eskaintzaren helburuak programazio zehatza, eguneroko dinamika, organigrama bat, antolaketa orokorraren prestaketa, balorazioa eta metodologi orokorra.”* Hau Aldundiak ez du eskatzen. Aldundiak berak bidali zuen kontingentzi plana eta protokoloa. Gaur goizean egon gara Aldundiarekin. Norberak egokitu zezakeen edo bidalitakoa erabili eta hori da Txilibutxofek egin zuena eta Txilibutxof-i zegokion Aldundiari kontuak ematea. Kontingentzi plan

hori, protokoloarekin batera zuri Ametsek pasatu zizun, goiko datuak kenduta. Zein fiskalizazio klase da hau?. Sexu deliturik ez izatea, guk BILDUri eman behar diogu hori?. Presentatu behar badute aurkeztu dezaketela. Aldundiak ematen die baietza, beste hainbat gauzetan bezala. Aldundiak ere ez du datu hori eskatzen. Bakarrik eskatu du diru laguntzak emateko.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Herritarren batzordean ere esan genuen, datuak ez genituela nahi.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Kontingentzi plana eta protokoloa eman zitzaizuen. Protokoloa zen Aldundiak bidalitakoa. Esan zenuen, eraikin bakoitzeko bat behar zela eta nonbait hori ez da horrela, zeren eta Aldundiak onartzen du beraiek bidalitakoa berriro beraiei bidaltzen. Kendu ziren datu pertsonalak baina, hortik esatea kontingentzi planetaz ideiarik ere ez dugula!. Nik uste dut Txilibutxof-i eskerrak eman behar zaizkiela udalekuak ondo joan direlako. Zorionez ez da kutsaturik egon baina baliabideak jarri ziren.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Bidali zen kontingentzi plana oinarria zen eta bidali zena zen link-a, baina hor legeak azaltzen ziren. Hor esaten zen kontingentzi planak egokitu egin behar zirela eta Txilibutxof-i bidalitakoa ez dago egokituta. Espazio ezberdinak erabili dituzte baina kontingentzi plan horretan ez da esaten. Balio duen ala ez?. Guk esaten genuena da segurtasun neurriak bermatu egin behar zirela. Hori ez da egin. Hilabete bat daramagu eskatzen eta ez zaigu eman!.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak eta hogeita hamabostean amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.